

**ADI ORDEZKO! ORDEZKATZE KONTRATUEN BANAKETAN IRUZURRA EGIN NAHI DIGUTE!**

Iragan ikasturteko esleipenetan ordezkatzeko kontratuak lehen aldiz esleitu ziren. Esleipenetan egite horrek, zerrendak egituratzeko jarraitzen den baremoaren irizpidea bermatzen zuen. Jakingo duzuen bezala, Gipuzkoako hainbat kontratuekin arazoak sortu eta bertan behera utzi ziren Gizarte Asegurantzak epaitegietara jo zuenean. Egoera honek kinka larrian utzi zituen bai errelebo-hartzaileak bai ordezkoak ere, "limbo juridiko" batean gelditzen baitziren. Egoera hau izanik, errelebo kontratua bertan behera utzita zegoela, ordezkoak aurten esleipenetara joan eta ikasturte osorako lanpostu osoak eskuratu dituzte. Epaitegietatik hainbat kontratuen behin behineko epaiak iristen ari dira eta hauek, jarraitu zen prozeduraren aldeko behin behineko epaiak dira. Egoera berri honek ordezko hauek aurtengo esleipenetan hartutako lanpostuei uko egin eta erretiro kontratua berriz ere hartzea bideratu ditu. Prozedura honek zerrendak egituratzeko jarraitzen den baremoaren irizpidea berresten du.

Aurtengo ikasturtean ere ordezkatzeko kontratuak eskatu dira EAEko hainbat irakasleren aldetik: Araban, 5 eskaera; Bizkaian, 2 eskaera eta Gipuzkoan 11 eskaera. Kidegoka banaketa honakoa da: Lehen Hezkuntza, 9 eskaera; Bigarren Hezkuntza, 4 eskaera; Lanbide Heziketa, 3 eskaera eta Hezkuntza Laguntza, 2 eskaera.

KONTRATU HAUEN IZAERA BEREZIA AZPIMARRATU NAHIKO GENUKE EZ BAITIRA ORDEZKAPEN ARRUNTAK (GERTA DAITEKE 5 IKASTURTERAINOKO IRAUPENA IZATEA) ETA BERAZ, HAUEN ESLEIPENA ZERRENDAK EGITURATZEKO JARRAITZEN DEN BAREMOAREN IRIZPIDEA KONTUTAN IZATEA EXIJITZEN DUGU! IZAERA BEREZIA DUTELA ESATEN DUGU, ORDEZKAPENAK ESLEIPENETIK ESLEIPENERAKO IRAUPENA BAITUTE ETA KONTRATU HAUEK BALDINTZA HORIEK GAINDITZEN DITUZTE! AURTENGO ESLEIPENAK GAUZATUTA DAUDELA ETA ORDEZKO ASKO DAGOENEO LANEAN ARI DIRELA JAKINIK, EZ DUGU BIDEZKOA IKUSTEN HEZKUNTZA SAILAK GAINONTZEKO SINDIKATUEN ONIRITZIAREKIN JARRAITU NAHI DUEN KONTRATU HAUEN BANAKETA PROZEDURA: TELEFONO BIDEZKO BANAKETA EGIN NAHI DUTE ZERRENDAK EGITURATZEKO JARRAITZEN DEN BAREMOAREN IRIZPIDEA SUNTSITUZ!

LANPOSTU BANAKETA HONEK ZERRENDAK EGITURATZEKO JARRAITZEN DEN BAREMOAREN IRIZPIDEAREN AURKAKO IRUZURRA GAUZATUKO DU ETA LABek EZ DIO HONI BABESIK EMANGO!

IAZKO KASUEI BAREMOAREN IRIZPIDEAREN PROZEDURA APLIKATU BAZAIE, AURTENGOEI ZERGATIK EZ?!

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Bueno Monreal, 10 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	M.Zelaieta 75, 2.A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	13 Marengo Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org